

 BOOKTEGI

Gollebarren erroak luze

MADDI AROCENA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

MADDI AROCENA

Gollebarren erroak luze

ZIORTZA-BOLIBAR

Sabina guztiei, emakume fin eta kementsu guztiei.

Gerlak, saminak, goseak, suteak zeharkatu eta
historia ofizialak ahanzturara kondenatu dituen guztiei.

Istorio txiki honek biziara nahi zaituzte,
ezagutu zaituztedan bezain eder eta duin.

Eta zuhaitzei, nola ez.

ANA

ERAMATEN NAUTE. Ez dakit nor diren, zer nahi duten, keinu lasaigarriak egiten dizkirate, baina ni ez nago lasai, inondik ere. Pasabide luze bat zeharkarazten didate, gizon batek besotik hartu nau. Nik ez dut ukitzerik nahi, gelditu egin naiz eta berehala utzi nau. Ihes egin nahiko nuke, baina nora ez nuke jakingo... orduan ondotik noakio, gela zuri bateraino.

Leku honi ospitale itxura hartzen diot, gaixorik izango naizela pentsatu dut baina ez nago ziur. Amesgaiztoa izanen da, hori. Iratzarriko naizenean, guztia ulertuko dut, eta sentitzen dudak ikara desagertuko da. Beldurra, beldurra baizik ez naiz. Gorputzean nire burua biltzen saiatzen naiz, baina alferrik. Oihu bat bota dut zuriz jantzitako emazte gaztea arropak kendu nahian hasi zaidanean.

Okay, okay, esan du bi eskuak niri buruz irekiz. Malkoak nabaritzen ditut masailetan behera.

Ohe gainean eseri naiz, ateari begira. Atea begi bistan behar dut, ihesbidea behar dut.

Zuriz jantzitako emakume gaztea parean eseri zait. Hatz erakusleaz bere bularra ukitu du. *Marion* esan du silabak bereiziz. Marion du izena dirudienez. Hatz erakuslea niri buruz zuzendu du, erantzunaren zain. Izena galdetzen ari zaidala ulertu dut. Ahoa ireki dut, baina ez dakit zer esan, ez dakit nola dudak izena. Burua lehertzeaz daukat une horretan, eta Marion nire atsekabeaz jabetu dela esango nuke.

C'est pas grave, esan du. Irriño lasaigarria egin dit, lasai egoteko ulertu diot, eta ohetik jaikitzen hasi da. Nik orduan, ez dakit zergatik, blusatik heldu diot, bakarrik ez baitut gelditu nahi. Eskua luzatu dit. Hartu diot, eta eskuz esku goaz pasabidean zehar ate urdin bateraino.

Psychologue jartzen du atean. Hori ulertu dut. Ideiak aski argi ditut, ez dut uste zoratzen ari naizenik. Ea laguntzen nauen psikologo delako horrek amets lazgarri honetatik ateratzen.

Bulegoan nahiko ongi sentitu naiz. Zur argiz eginiko apalategian liburuak txukun bilduak dira, gaika ordenatuak, eta han-hemenka apaingarriak daude. Irudi handi batek estaltzen du eskuineko horma, oihan baten irudiak. Erraietarainoko fereka sumatu dut, gozoa, beroa, eta horrek lasaitu nau zeharo.

Beste horman haur batzuek eginiko marrazkiak daude. Etxe alaia, lore koloretsuak eta betaurrekodun eguzki irribarretsua. Hemen bai, hemen egon naiteke une batez.

Marionek psikologoa agurtu du, eta zerbait esan dio, nire eskua askatu gabe.

Psikologoa emakume heldua da. Soineko berde loreduna du, eta gustatzen zait haren larru ilunarekin egiten duen kontrastea. Ezpain harro mamitsuak ditu, eta irriño ederra eskaini dit, hortz zuri-zuriak erakutsiz. *Gabrielle* esan du, eskua niri buruz luzaturik. Marionek eskua utzi dit eta Gabrielleri bostekoa eman diot. Besaulki grisean jartzeko keinua egin dit. Eseri naiz.

Gabriellek betaurrekoak ezarri ditu, eta ordenagailuan zerbaiten bila hasi da. Pantaila itzuli du nik ikusteko gisan. Mapa bat agertzen da, Frantziako mapa, eta arkatz puntarekin *Bayonne* seinalatu dit.

Baionan nago beraz? Nire harridurak nabarmena izan behar du. Gabrielle hitz egiten hasi da, ageri da azalpenak eman nahi dizkidala, baina asmoa hartzen badut, ez dut esaldien esanahirik ulertu.

Español? galdetu dit. Nik ez dakit, zerbait gogorarazten dit bai, baina lausoki.

English? Nik buruarekin ezetz.

Deutsch? Larritzen hasi naiz. Gabrielle ohartu da, eta *okay, okay, pas de problème*, gehitu du. Nik mutu jarraitu dut. Pentsamenduak baditut, baina ezin ahoskatu. Eta larriago dena, ezingo nuke esan zein hizkuntzatan pentsatzen dudana. Zutitu behar dut, urrats batzuk egin. Pagadiaren argazkiaren aurrean gelditu naiz, eta eskuz ferekatu dut. Gabrielle begira-begira daukat. Une batez isiltasunean egon gara biak. Begiak itxi ditut eta eskua pago baten enborrean ibili dut, ez dakit zergatik. Sustraitu beharra izanen da...

Psikologoa une baten buruan atzetik hurbildu zait eta eskua sorbaldaren gainean pausatu dit. Begiak ireki ditut. Lasaiago nago. Arnasa sakonago hartu dut eta Gabrielle begiratu dut, irriño bat egiten hasiz.

Besaulki grisean jartzera joan naiz berriz. Gabrielle liburu bat bilatzen hasi da zur argiz eginiko apalategian, eta atzeman duenean bulegoaren atzeko aldera itzuli da.

Hiztegiaren itxura du liburuak. Emaztea lehenbiziko orrialdea irakurtzen hasi da:

Adèle, Adela, Adelinda, izen bakoitza leitu orduko, begiratzen nau. Ulertu dut nire izena atzeman nahian dabilela. Espero dut nirea ez dela Zetaz hasten... Agathe, Agata, Alice, Alicia, Adelaide, Adriana, Agustina, Ainhoa, Alba, Aines, Anne, Ana... hor gelditu da. Anna? Ana?

Ana. Ana. Baliteke. Zerbait mugitu da nire baitan izena entzuterakoan. Ana. Baietz egin dut buruarekin. Ana. Gustukoa dut, ez da gutxi.

Gabriellek pozik dirudi. *Ana! Ana! Bonjour, Ana!!* Ikaragarritzko lorpena dela adierazi nahi dit, nire barreneko amildegitik ateratzeko bidea erakusten duen argi izpitxoak piztu dela alegia. Ana naiz. Badirudi baietz.

Psikologoak bulegoko tiradera ireki eta bloka eta arkatza atera ditu. Idatz dezadan proposatu dit. Arkatza hartu dut, eta paper zuriari begira gelditu naiz, zer egin ez dakidala. Ez dut ulertzen... *Psychologue* hitza irakurri badut, mapan herrien izenak irakurri baditut, zergatik ezin dut idatzi? Saiatu naiz zerbait egiten, baina trazu trakets bat baizik ez zait atera... malkoak berriz ere... *c'est pas grave, Ana, okay!* Gabriellek besarkatu nau, eta negarrez lehertu naiz, hipaka, eztarrian kokatua neraman urtegiak zapart egin izan balu bezala.

SABINA

ZIORTZAKO KOLEGIATARA igo behar duela erabaki du. Ez da baitezpada bide luzea, kilometro bat baizik ez du bidarriak, baina malda gora, eta ezkerreko oinak laurogeita sei urte soinean dituela oroitarazten dio urrats bakoitzean.

Abiatu da baina, Sabina ez baita ezer egin gabe gelditzen diren horietakoa. Zailtasunak zailtasun, beti aitzina egin izan du, aurrera beti. Alabari ez dio deusik erran, debekatuko baitzion bestela alabak, zaingopean dauka eta. Adinean gora joan ahala beti ukan du alboan, edozertan laguntzeko prest. Sabinari irriñoa ateratzen zaio alabaz gogoratzean. Eskertua dago, hori da hitza, eskertua ukan duen bizitza emankorragatik, bere gorabeherekin noski, baina maitasunez betea izan baitu bizitza. Zer gehiago eskatu? Zenbat aldiz ez ote duen hori pentsatu.

Une latzak ere izan ditu, nola ez, senarra bat-batean hil zitzaionekoa izanki azkeneko une dorpea. Urtebete eskas gertatu zela. Oroitzen da nola erran zion, ohean etzanda eta azken orenak iritsi zitzaizkiola oharturik, eskua tinkatu eta *Ama* (horrela deitzen zioten elkarri, ama eta aita) *etorriko al zara nigaz bidaia honetara?* Oroitzen da nola egon zen instant batez barruak josita, eta nola erantzun zion *Nola joango naz ba ni hauek hemen utzita? Joango naz bai laster.* Zer egina bazuela pentsatzen zuen, beti aritu baitzen seme-alabengatik guztia ematen, gaur arte. Nola utziko zituen bada aitaz eta amaz umezurtz?

Eskerrak makilei. Semeak etxean utzitako makilak hartu ditu. Ez daki behar den neurrira ekartzen jakin duen, baina gutxi gorabehera bai. Bidarrian aitzina egiteko hirugarren eta laugarreneko zangoak ez dira ez soberakoak izanen. Sabinak inork ikusi ez duela espero du, herri honetan zaila baita inor konturatu gabe pausorik ematea eta alaba ohartuz gero, akabo, berehala bila etorriko litzaioke eta atzera etxera.

Geldiune bat egin du gereziondoaren eta intxaurrondoaren alboan. Ezkerreko hanka zahar honek pausa agindu dio. Bihurgunetik ederki ikus daiteke herria, hain gustura bizi izan den herria. Txikia dela diote kanpokoek, baina Sabinarentzat neurri onekoa da hauxe. Bidaiatu izan du Mexikora, eta hango lekuak ikusgarriak iruditu zaizkio, baina Gollebarren du habia egina, Gollebarren egin du lan, tabernan lehenik, Urionekuan, eta ondoren granja sortu zuten senarrak eta biek.

Gollebarren du senarraren hautsentzat txokoa landan egina, eta duela gutxi arte uste zuen azken urteak lasaiki igaroko zituela bertan. Neba urtero Arratera joaten da eta urtero galdetzen dio Sabinari zer nahi duen harentzat eska diezaion Ama Birjinari. Sabinak osasuna eta urte baterako biziraupena eskatzen dizkio. Urtero erreberritzen da kontratua. Joan den aldian, pentsatu zuen azkeneko urtea izanen zuela, senarrarengana joateko epea iritsiko zitzaiola lasaiki, baina zorteak bestela erabaki du.

Ana desagertu denetik ez du ez lorik, ez jan-edan onik egiten lortzen. Alaba kezkatzen da, jan behar duela, pausatu behar duela behin eta berriz errepikatzen dio. Baina nola egingen du bada lo Ana non dagoen jakin gabe? Begiak hestea lortzen duenean, amesgaiztoak heldu zaizkio erasoka, alaba batean Artibain itoa, bestean Astarloa kobazuloan hilik ikusten du... hobe esna egotea.

Beti pentsatu izan du minbizia harrapatzea nahiago lukeela burua galtzea baino, baina orain alderantziz pentsatzen hasi da: hobe burua galdu eta ahantziko balu, sabela tinkatzen dion min hori jasatea baino. Buruak eztanda egingen diola uste du batzuetan, hainbeste itzuli emanik arazoari. Ezin ulertuzkoa baita gertatutakoa. Nola desager daiteke norbait une batetik bestera, inongo berririk eman gabe, arrastorik utzi gabe? Anak ez luke holakorik egingen, ezta pentsatu ere. Anak ez luke ama holako trantzean utziko, ezta ahizpa ere, ezta neba ere... ulertezina da kontu hau guztia.

Donejakue bidea egin behar zuela, baina Burgostik abiatu eta Frantzia aldera, oporrak baliatu eta horixe egin behar zuela. *Hori ere aldrebek egin behar ba gure Anak.* Sabinari burutik pasatu zitzaion Gollebarren hainbeste erromes gurutzatzeak piztuko ziola gogo hori. Munduaren beste puntatik ere heldu baita jendea Usandi aterpetxera gaua pasatzera, eta, herrian bertan izaki, Sabinaren etxe ondo-ondoan, txikitatik ikusi ditu Anak adin guztietako motxiladun horiek, hizkuntza guztietan mintzo, Kanpape tabernan atsedenaldira hartzen, edo plazan Bolivarren monumentuaren oinetan eserita, motxila astunak eta makilak pixka batez lurrean utzirik. Dortoka itxurako silueta haiek ikusi izan ditu aroaren arabera lainotsu edo koloretsu, egunean hogei bat kilometro kurritutako zangar gogortuak luzatzen, iturrian ur freskoa hartzen, eta maiz komentatzen zuen bera ere joanen zela egunen batean, jendea zeren bila doan aurkitzera.

Zangarrak gogor sumatzen ditu Sabinak gaztainondo gaztearen ondotik igarotzean. Orain hura ari da urratsen giblean gordea denaren bila, taka-taka, pauso bat bestearen ondotik, gorputzak

egin dezala lan, buruari lanuztea eskainirik. Hori izanen da agian bideak eskaintzen duen mesedea?

Arteei begira egon da instant batez. Gogora ekarri du nolako maitasuna zien Anak arteei. Enborra besarkatzen aritzen zen, *taupadak entzuten, ama*, erraten zion. Harreman berezia zuen Anak arbolekin. Beno, arbola guztiekin ez alabaina, pinuak eta eukaliptoak ez zituen begi onez ikusten, baina bertako betiko zuhaitzak izugarri maite zituen.

Pikondoarengana hurbildu da Sabina. Zenbat aldiz ez ote zizkien Anari eta biei piku goxoak eskaini? Anak arbolari eskerrak ematen zizkion fereka batez, eta Sabinak berak ere fruitua arbolatik hartzerakoan eskerrak ematen ikasi zuen. Hori bai, isilean, ez alabak ozenki egiten zuen bezala.

Ana Corpus Christi egunean abiatu zen. Ziortzako monasterioan meza eta prozesioa izatekoak ziren, baina Anak ez du eliza zapaltzen. Sabinak berak ere gutxi. Ehorzketetan eta egun handietan baizik ez da elizan agertzen. Lehen, aspaldi, Corpus Christi eguna egun handia izaten zela gogora ekarri du. Pazko-igande egunetik 60 egunera izaten zen, eta jantziak aldatzeko egun seinatua, udako jantziak estreinatzeko unea, negukoak erantsiz. Ekain zakarra egiten ari dela pentsatu du emazteak, soineko arinagoa jantzi izan beharko zuela, eta arratsaldean etxeko itzalean egonen dela pausatzen. Edan beharko du, hori ere ahortzi egiten baitu, ez du egarri sentsazio handirik sumatzen, eta deshidratazio arriskuaz kontziente da. Etxerakoan Usandiko iturrian hartuko du ur fresko eta garbia.

Bidarria utzi eta azken patarra goiti. Azken metroak luze gertatzen ari zaizkio Sabinari. Baserri ederra agerian dago bertatik. Lehen bi zatitan eraikitzen ziren baserriak, alde batean gurasoak eta bestean bikote gazteak bizi zirela. Baina orain, erreforma egiten dute eta dena bat gelditzen da. Sabinari pena ematen dio horrek, baina *holan dira orain horrek gauzok*.

Oinetakoak kentzeko irrikan dago, belarretan oinutsik ibiltzeko gogoa du, txikitan bezala, amarekin Madalenara joaten zirenean ortutsik baselizari itzulia ematen ziotenean bezalaxe. Ohitura hura sorginkeriaren bat ote zen bururatu izan zaio, baina gaur edozer gauza eginen luke alabaren aztarnarik txikiena ere atzemateko.

Azken mezua Iruñetik jaso zuten. Anaren mezuak bidean zenbat eta aurrerago eta orduan eta laburrago izan ziren, ohartua zen Sabina horretaz. Hasieran, egunero hartzen zuten etxekoek

mezutxoa eta argazkiak, deskribapenak, topatu zuen jendearen aipamenen bat edo beste. Hori lehendabiziko egunetan; baina laster mezu motz-motzak iristen hasi ziren, *dena ondo, mosu* bezalakoak.

Ana beti izan da oso independentea, bizitza bere gisara eraman nahi izan du beti, besteek pentsatzen dutenaz ez du batere axolarik izan. Erizain ikasketak ere ia bukatzen ari zituela bertan behera utzi zituen, hura ez zela harentzat egina konturatuta, eta basozain izateko ikasten hasi zen, gurasoen harriadurarako. Baina beti bezala, lagundu egin zuten hautatu zuen bide berri hartan aurrera egiten. Hori oso argi zuen bikoteak: seme-alabengatik ahal zen guztia eginen zutela. Beti.

Monasterioko belardia zein ongi zaindua den gogora ekarri du Sabinak. Fraide horiek beste ezer guti egiteko dutela ere pentsatu du. Hortxe daude olibondoak, non eta Gollebarren olibondoa sartzea pentsatu behar zen gero... Olibotik omen datoz fraideak, Bardeatik hurbil dagoen lekutik behinik behin, eta 1980an iritsi ziren bertara eta eraikina guztiz berriztarazi zuten.

Lehen Ziortzan bertan zortzi etxe zegoen, auzo ederra zen hura, harresiz inguraturiko toki dotorea, eta bizitasun handikoa. Baserritarrek zaintzen zituzten inguruko eremuak, oihan aldea eta pentzeak. Garai haietan monasterioa hutsik zegoen, eta eliza haurren josta tokia zen. *Olgetan ai ginan gu elizan*, zurezko oholen azpian gorpuen hezurak hartu eta ezpatak bailiran ari ziren txikitan hango haurrak. Edo bestela organoaren atzealdean zeuden larruzko liburu handiekin jolasean... Abandonatua egon baita urteetan lekua.

Sabina elizpean eseri da itzalean. Makilak hortxe utzi ditu zutik paretatxoaren kontra. Begirada altxatu eta hortxe dago dragoi itxurako zur zaharreko eskultura. Habeetan zizelkaturik euskal ikur zahar eta ederrak ere zein ongi kontserbatu diren harritzen da aldiro. Ziortzan bazterrak lasai daude, inor guti agertzen da ordu hauetan hara. Geroxeago hasiko da erromesen dantza, arratsalde aldera.

Eliza barnera sartu da Sabina, aspaldiko partez otoitz egitera. Ez daki xuxen nola egin behar duen, baina nola hala aterako zaio zerbait. Aitorleku ilunaren aitzinetik pasatzean, Irustakoak kontaturiko gertakaria heldu zaio gogora.

Francoren garaian nonbait, ba omen zen Ziortzan inorekin ongi konpontzen ez zen gizona. Gauza onik behintzat ez zitekeen harengandik espero. Bada, egun batez delako gizona konfesatzera

sartu omen zen eta auzokide batek ikusi zuen nola atera zen kofesategitik lasai asko, bekatuak barkatuak zituela eta. Ondotik, mezan Jauna hartu omen zuen guztien begi bistan.

Ondoko astean, meza hasi baino lehentxeago, jendea ordurako eserita zegoela, delako auzokidea elizan sartu zen aizkora eskutan zuela, eta aitorlekua jo eta txikitu omen zuen. Gero, tabernan sartu, aizkora bere ondoan pausatu eta baso bat arno eskatu zuen, deusik gertatu ez balitz bezala. Bada ez omen zion inork ohar txikiena ere egin! Dirudienez, denek pentsatu baitzuten beste hari egiten zituen zikinkeria guztiak barkatzen bazizkion, eliza horrek ez zuela besterik merezi. Abadea ere isil-isilik egon omen zen. Agian pentsa zezakeen bera kofesategiaren barnean harrapa zezakeela eta! Irriz hasi da Sabina aulki gogorrean eseri den bitartean.

Ostatua nola erre zen ere oroitzen da Sabina. Ondoko baserrikoek lastoa bertan biltzen zuten, eta urriko haize hegoarekin tximinian lotu zen sua. Kanpoan dabiltza orain sotanaz jantzitako monje zistertarrak, gaur berritua den ostatuko leihoak zabaldu eta gelak prestatzen, erromesak iritsi aitzin. Ospitalea nola berritua izan zen ere ezin ahantzia da... Lehenik, Sevillatik etorritako arkitektoak eginarazi zuen teilatua, zapal-zapala, Andaluzian egin ohi den bezalakoa. Bertako jendeak jakin bazekien horrek ez zuela luzaz iraunen, eta hala gertatu zen, lehenengo udan bota zituen euriekin guztia urpean gelditu baitzen. Gerora lekuari egokitu behar izan zioten teilatua, lan bikoitza beraz.

Hasperen luzea bota du emazteak aldareari begira. Ez zaio otoitzik heldu, ez daki alabaren itzulera nola eskatu behar dion ezta nori ere, eskuak gurutzatu ditu, haurtzaroko jestua errepikatuz gogoak ahantzitakoa gorputzak oroituko duelakoan. Zenbat oren ez ote du pasatu aulki gogorretan eserita eta belauniko elizan? Zenbat prediku eta beldurrezko mezu ez ote duen entzun? Dena zen bekatu. Dantza egitea bera ere debekatua zen. Plazera kontrolatzeko zenbateko grina jartzen zuten elizgizon haiek, haien frustrazioa besteei ordainarazten zieten aise... Une goxoak ere izaten ziren halere. Gabonetan haurrak erregeei bidean zer eroriko zitzaien ikustera joaten zirenean, besta izaten zen. Eskolako kartoizko poltsa gorria gogoratzen du Sabinak.

Anaren bisaia ekarri du gogora, haren irriño eztia, haren alaitasuna eta indarra.

Non hago, maitea? Non hago?

Seinale baten zain dago ama.

ANA

ASTEBETE PASATU DA. Baionako ospitalean nago oraindik ere. Fisikoki hobeto nago, nituen zauriak ez omen ziren larriak, zarramazkak eta uspelak gorputz osoan, hori bai, baina bestela ezer gutxi.

Lehengo goizean, polizia etorri zait argazkiak hartzera, ulertu dudanez nire desagertzearen abisua hedatzeko asmoa dute telebistan, sare sozialetan eta egunkarietan. Marionek baietz, berri ona dela adierazi du erpuruak altxatuz, baina nik ez dakit zer pentsatu... alde batetik noski, etxeakoak bila etorriko balitzaizkit, sekulakoa litzateke, nire baitako puzzlea osatzeko aukera paregabea nonbait. Baina beste alde batetik, ikara sortzen dit ezagutuko ez nituzkeela pentsatze hutsak...

Azkeneko egunak oso gogorrak izan dira niretzat. Azterketa andana pasarazi didate. Ez dakit zenbat eskuren artean ibili den gorputz hau... Nirea dela sentitzen dudana gauza bakarra izaki, hasieran bortxaketa balitz bezala bizi izan dut mediku horien guztien ikertu beharra. Bizitza zatikatua izatea aski ez, eta orain gorputza ere atomizatua dut. Gauza gehiago badakit orain niri buruz, hau da haurrik ez dudala ukan, horrek lasaitu nau, kezka bat gutxiago, ez bainuke haur batentzat arduratzeko indarrik izanen nagoen bezala. Ez dakit erabakitakoa ala horrela suertatutakoa den haurrik ez izatearena, baina une honetan komeni zait.

Azterketa eta analisi horiek ustekabearen aurrerapen handia eskaini didate. Hasteko, orain badakit zer gertatzen ari zaidan eta konpon daitekeela ere ulertu dut. Odolbildua jauzi zait burmuinean, eta horren eraginez hitz egiteko gaitasuna kudeatzen duen gunea kaltetua izan da. Herenegun egin zidaten ebakuntza, espero dut beranduegi ez dela izan. Oso ongi joan omen da guztia, beraz itxaron behar. Eskanerrean hartutako argazkia erakutsi didate, arteria odolbildutik libratua agertu da, eta garuneko zainen irudiak zuhaitzen sustraiei pentsarazi dit. Erroak lurrean nola, zainak ere sakonean ari zaizkit lanean, oroimenaren bila nire ustez.

Memoriarena iduriz shock egoeraren ondorioa da. Agian. Baina tira, aurrera noa.

Beste berri ona, Ximun. Ximun erizaina da hemen, eta erradiografia pasatzerakoan ezagutu dut. Blusa urdinean izena darama, hemen ohi duten bezala, eta Ximun izenak nigan zerbait esnatu du. Hurbildu zaidanean, izena erakutsi diot, Ximun. *Ximun* esan du berak, *ça te plait?* Eta bat-batean

kantatzen hasi da *Ximun, Ximun, gibealeko leihun, Xalbador, Xalbador, ez da hor, ez da hor, Xabier, Xabier, bortatik so bazterrer!*

Eta ni barrez lehertu naiz, ulertu baitut noski!! Ximun konturatu da, eta orduan argitu da bost egunez asmatu ezina, hau da euskalduna naizela. Baionan... Bost egun... europar hizkuntza mordoarekin saiatsu ziren alta, alfer-alferrik, eta bertakoa gogora etorri ere ez.

Niretzat lorpen izugarria izan da. Osatzen hasteko oinarria finkatua dut. Euskaraz pentsatzen dut, amesten dut, argitu zait kezka. Ez naiz beste planeta batetik eroria, ez, lurralde honetakoa naiz, nahiz orain arte topatu dudana euskaldun bakarra Ximun izan. Baionan...

Bi egun hauetan Ximunen ondotik ibili naiz txakur txiki baten modura. Ximun nora, Ana hara. Oso jatorra da gizona, eta lagunduko nauela agindu dit. Lasai egoteko, lagunduko nauela.

Nik oraindik ez dut hitz egitea lortzen, baina Ximunekin komunikazioa errazagoa da, gutxienez esaten duen guztia, edo gehiena ulertzen baitut. Gizona nire itzultzaile ofiziala bilakatu da ospitalean.

Hemendik ateratzeko beharra sentitzen dut, airea hartu behar dut, hemengo usainak belar usainez ordezkatu, arnasa hartu zain libratu hauek oxigenoz asetzeko. Leihotik ikusten ditudan bi intxaurrondoek deitzen nautela dirudi. Ximuni erakutsi dizkiot arbolak eta hark *bai, noski, joaiten ahal zira beheko parkerat, zoazi, eta ni geroxo jinen niz zure xerka*.

Pasabide labirintiko hauetan ez naiz galdu, behintzat. Aparkaleku handia zeharkatu eta hortxe daude, handiago, ederrago oraindik bigarren solairutik ikusirik baino. Gerturatu naiz, eta besoak automatikoki joan zaizkit enborraren gainean, besarkatzera. Zaila da harreman horretan sentitu dudana hitzez azaltzea, hain da sakona izan. Gure bi gorputzak josiak egon dira denbora eta espazioz kanpoko ukimen horretan. Belarria enborrari lotu diot, haren taupadak nire bihotzarenekin bateratu, eta hortxe egon gara biak burbuila perfektua osatuz. Etxean bezala sentitu naiz aspaldiko partez. Begiak itxi ditut eta tentsio guztiak laxatu, enborrari eman, hark baitaki nik baino hobeki hau nola kudeatu. Orduantxe hasi zaizkit irudiak heltzen. Lehena, haurrak elizpe batean intxaurretan jolasten, beste batzuk plaza txiki baten inguruan harrapaketan ari, kaniketan beste batzuk. Plaza hura ezagutzen dut nik, hala uste dut gutxienez. Enborra bihotzaren kontra tinkatu dut, estu, eskertua sentitu naiz, aldi berean inarrosia eta eskertua. Masaila bustia dudala ohartu naiz, eta malkoa intxaurrondoaren azalean beheara nola

joan den begiratu dut begiak berriz itxi aurretik. Eta bigarren irudia flash moduan iritsi zait, eraikin handi bat bidarri baten muturrean, eta harrizko horman zizelkatuta arrano bat bere garretan burezur bat duela. Burua nahasten hasi zait bat-batean, eta arbolari bizkarra eman diot, haren oinetan esertzeko. Horrelaxe atzeman nau Ximunek bila etorri zaidanean.

Ze, untsa zirea? galdetu dit hurbiltzean. Eta nik baietz buruaz egin diot keinua, baietz, eta lehen hitza askatu dut, *ederto!* Ez dakit nor den gehien harritu, Ximun ala ni neu, eta gizonak errepikatu du, *ederto? Hori da erran duzuna?* Eta nik berriz *ederto*, oraingoan hobeki ahoskatuta, lehen saiakeran baino argiago, nahiz oraindik ere *eeto*-ren antz gehiago izan bota dudan horrek. Baina zerbait erran dut, hitz bat atera zait zintzur mutu honetatik, azkenean! Gelarako bidean, saiatu naiz hitz gehiago ateratzen baina leher eginda nago. Ohera joan nahi dut. Lo egin behar dut. Ametsetara gonbidatuko ditut arranoa, burezurra eta haurrak, eta bihar berriz kanpora joanen naiz. Ximunek bihar jai duela esan dit eta Uztaritzeko oihanera joan nahi dudana proposatu dit. Zuhaitz gehiago besarkatuko dudala pentsatzeak kemen handia eman dit gerora begira. Tunel ilun honek irtenbiderik duela sinesten hasia naiz. Milesker, Ximun.

SABINA

ETXERA ITZULI DA SABINA. Oinez ez baina, alaba ohartu eta autoz igo baitzaio bila. Gollebarrerainoko bidea isiltasunean egin dute bi emakumeek. Alaba errieta egiten saiatu da, baina ezin izan du. Nola ez du bada amaren kezka ulertuko, aste hau amesgaiztoa izan baita etxekoentzat.

Sabina pentsakor doa, gaztaroko oroitzapenak ekartzen ditu gogora nahi gabe ere. Hori izango da zahar izatearen kontua, pentsatzen du maiz. Erreka ondotik pasatzean, boluak gogoratzen ditu. Asko ziren lehen herrian boluak, eta kurioa da Bolibar herri txikiak mundu osoan zehar duen oihartzuna, erroten ibarra izatetik Latinoamerikaren ikur bilakatzeraino, urak egin duela bide... Simon Bolivar zaharra bertan sortu bazen ere, haren ondorengoa izan zen Askatzaile izendatu eta gaur arte herri txiki honi mundu zabaleko ospea ekarri diona. Hura abenturazalea omen zen, eta askatasun zalea batez ere. Ana bezalakoa nonbait. Garai haietan bizi izan balitz, Ana izan zitekeen Simon Bolivarren Manuela, askatzailearen askatzailea. Irudi horrek irribarrea sortu dio emakumeari, eta itxaropena ez dela inoiz galdu behar oroitarazi.

Biharamunean, semea Artara laguntzeko eskatu dio. Leku lasaigarria da huraxe. Arta, Jainkoak aparta, esan ohi zen, baina Sabinak oso hurbilekoa du tokia. Baserria hor dago beti, eta baseliza txikia, pagadi txikiak inguratua. Zuhaitz ederrak daude bertan. Anari gustatuko litzaioke hemen egotea, ziur, eta zuzen-zuzenean joango litzateke haritzen bat besarkatzera. Amak hori ez du oso ongi ulertzen baina inori kalterik egiten ez badio, non dago arazoa? Anak azalpenak ematen zizkion entzun nahi zuen orori, *zuhaitzak ez dira egurra soilik, izakiak dira, sortu, hazi, eta mugitzen direnak, gu bezala, baina beste erritmo batean higitzen direnez, ez diegu kasurik egiten. Alta, haien artean komunikatzen dute, haien umeei esne moduko bat ematen diete, eta beraien umeei soilik. Zuhaitzen munduaren ulermenaren atarian baizik ez gaude, eta ikasteke daudenak zoragarriak izanen dira.* Sutsu mintzo da Ana, konbentzitzeko ahalmena izan du beti, eta kemena.

Sabinak gerla osteko une latzak ekarri ditu gogora. Herrian elkartasun handia zegoen, baita bestelako jarrerarik ere, zoritxarrez, leku guzietan bezala Gollebarrek ere bere traidoreak bazituen. Herriko gizon batzuk preso eraman zituzten Bilbora, eta emakumeak elizpean elkartzen ziren senarrei bisita egiteko txandak antolatzeke asmoz. Horrela, batek eramaten zizkien preso

guztiei jantzi garbiak eta janari zerbait denen partetik. Pareko etxetik haatik abisua jaso zuten, hobe zutela ez elkartzea. Mehatxua argia zen, denek zekiten salatari etxea zein zen eta horiek zer egiteko gai ziren. Orduan emakumeak mezatik landa elkarren ondoan eseri eta papertxoak ibili ziren poltsikotik poltsikora mezulari. Presoak Huescan ere egon ziren, kontzentrazio zelaietan bideak eraikitzen. Familia batzuetan aitita Puerto de Santa Marian preso, aita Huescan. Emakumeak etxean, ahal bezala aurrera egiten, duin, malkoak burkoarentzat utzirik. Espetxeko kontuak beranduago jakin zituzten haurrek, mahai inguruan kontu-kontari etxeko guztiak bilduta mahaspasak jaten ari zirela.

Bezperako ibilaldiak zangoak minbera utzi dizkio, baina ez da damutzen. Laurogeita sei urtez zenbat kilometro ez ote dituzten kurritu kontuak ateratzen hasi da, garai haietan ibilgailu bakarra bi oinak izaten baitziren gehienetan. Oroitzen da Artakoak nola etortzen ziren igandero goizeko sei eta erdietako mezara oinez. Neguan iluna zenez lasto-sua erabiltzen zuten bidea argitzeko.

Herrian bertan bizi zirenek ere meza ez zuten huts egiten. Batzuetan hiru ere izaten ziren egunean, eta baraurik hartu behar ziren. Herritarrak orduan mila baino gehiago ziren.

Egundainoko bizia zegoen bertan. Hiru eskola zeuden, tabernak eta dendak ugari. Karmelonean, zernahi gauza eros zitekeen, kuleroak edo zapatilak, karteratxoak eta kolonia. Fruteroa ere bazegoen, Pako Maderas deitzen zutena, hark korneta jo eta bezeroak platerarekin ateratzen ziren fruta bila. Beheraxeago, aterki egilea, tarta moldeei ipurdia konpontzen ziena, eta ezti saltzailea.

Zenbat lanbide desberdin zegoen Gollebarren: zapataria, eskopeta egilea, saskigilea, bizargilea, taxia. Eta Mauro, zaldi handi baten gainean orraziak, orratzak, bizar nabalak eta Varon Dandy perfumea saltzen zituena.

Beheko kalean berriz, pinaburuen haziak labean erretzen zituena, abarkak lotzeko soka egiten zuena, harategia, okindegia, karea litroka saltzen zuena, ile apaindegia...

Gaur egun, taberna bakarra mantendu da. Iruzubietan Armola eta Zubiondo badaude behintzat, baita lkestei jatetxe eta aterpetxe ederra ere.

Biztanleria laurehunera jaitsi da. Sabina ez da berez nostalgikoa, baina gaztaroko oroitzapenak gero eta maizago gonbidatzen dituela konturatu da.

ANA

UZTARITZEKO OIHANERA eraman nau Ximunek eta berpizten hasi naiz berehala. Usaina da lehen-lehenik jaso dudana. Humusa, lur heze eta egur usain berezia, zoragarria. Eta berehala, ametzak, ametza da baso honetan nagusi. Hemen pinurik ez dagoela pentsatu dut, ezta eukaliptorik ere. Ez dakit zergatik, baina horrek izugarrizko poztasuna eman dit.

Bidexkaren bururaino noa, usainka, usnaka, animalia naiz, arbolen herrian libre. Haizearen firfiran dantzan hasi naiz, oinak lurlean errotuta. Mugimenduak uhinen modura hartu nau, belaunetatik gerriraino. Besoak hedatu ditut, adarrak ditut nik ere, adar dantzariak, zerura buruz igorri ditut, ahal bezain emeki, zuhaitzek dakiten bezala, haizearekin mintzo, begiak itxita, zorabio gozoan mozkortu naiz zehaztugabeko une batez. Begiak ireki eta eskuin aldean deika ari zaidan ametz zaharrenezana hurreratu naiz. Honen enborra inguratzeko ni bezalako lau beharko lirateke. Ximun bidean gelditu dela konturatu naiz, mugikorrari erantzuten ari da. Ni ametza besarkatzera. Atzokoaren esperoan nago, itsuki eta konfiantza osoz bihotzaren taupadak lasaitu arte. Eta bai, irudiak datoz berriz ere, zurrumbilo batean oraingoan, errekak, boluak, eta Ximunen irudia. Ximun eta errotak, zein ote da mezua?

—*Ana, Ana!* Ximun oihuka dator, lasterka, mugikorra eskuan duela. *Atzeman zituzte, Ana! Garaziko Ospitaliatik hartu dute mezua. Han egon zinen errones, eta zure izen-deiturak badituzte, baita helbidea ere.* Informazioa tratatu ezinik egon naiz istant batez. Ximun poz-pozik dago, eta nik ere hala izan beharko nukeela uste dut, baina ez dut lortzen. *Fini da, Ana, zure bizia berreskuratuko duzu, dena untsa joanen da, ez kexa!* Besoetatik hartu nau gizonak eta irribarre zabala eskaini dit, *ederto, Ana, ederto!!* Barrez hasi naiz, barrez eta negarrez, eta Ximun besarkatu dut. *Eskerrik asko*, pentsatu dut. Eta Ximunek *ez horregatik* erantzun dit. Hortaz jabetu naiz hitz egin nuela, eta autorako bidean hitzak errepikatzen hasi naiz. *Ederto, eskerrik asko*, eta Ximunek aldiro *bikain*-ka animatu nau. Errepidean zehar ikusi dudak guztia izendatzen saiatu naiz. Silaba batzuk nekez ahoskatzen ditut, baina hitz egiten dut, Ximunek erraten duen bezala, *mintzo zira*. Ospitalera iristean, psikologoaren bulegoan zain ditugu neurologoa eta erizaina. Ximun itzultzaile lanean ezarri dut berriro. Elementuak banaka ematen dizkidate, ongi ulertzen dituzadan. Ana Arriaga omen naiz. Ederto. Berrogeita hamalau urte dut. Eta Ziortza Bolibarrekoa

naiz. Bolibarrekkoa, Simon Bolivarren jatorrizko herrikoa, Simon, Ximun... Irudiak ulertu ditut. Arranoa, Ziortzako kolegiatan dagoen eskultura. Gollebarreko eliza, elizpea, jolasak, plaza, Bolivarri eraikitako monumentua, Usandiko iturria. Artako pagadia, haritzak, astigarrek, sagarrondoak, pikondoa, intxaurrondoa, hantxe oroitu ditut guztiak. Nonbaitekoa izatea zer gauza ederra den pasatu zait burutik. Erroak Gollebarren ditut, etxea ere han izanen dut, jarleku batzuk ikusten ditut atari batean. Eta zuhaitzak zainak lur sakonera botatzen dituen bezala ari naiz sustraiaetatik enborrera emeki-emeki igotzen adarretan zehar, nire istorioaren bila.

GOLLEBARREN

ETXEKO ATARIAN Sabina eta Ana eserita daude, uztail bukaerako goiz argitsu bero ekarlean. Hilabetea joan da Ana aurkitu zutenetik. Donibane Garaziraino iritsi zen eta gaua bertan eman ondoren, Baigorriraino botako zuela bururatu zitzaion. Bidean ari zela gertatu zitzaion. Erori zela oroitzen da, buruko min bortitzak eraginik ikusmena lausotu eta errekan behera erori zen. Bizkarreko zakua orduan galdu zuen, eta nola hala jarraitu zuen aurrera errepide bat aurkitu arte. Hor atzeman zuen laborari batek eta suhiltzaileak deitu zituen.

Ibilaldiaren oroitzapenak emeki-emeki berreskuratu ditu Anak, Artako pagoak eta Ziortzako arteak besarkatu eta Elosuko basoan landatu berri diren bertako zuhaitzei bisita egiten die maiz. Pinuek eritasuna hartu zutelarik, itxaropena izan zuen, jendea konturatuko zela bertako arbola sartzearen garrantziaz, lurrari behar duen denbora eskainirik, aitzina egiten zen moduan. Arbasoen garaian, arbolak landatzen zituenak ez zuen haien itzalaz gozatzeko paradarik izaten, hurrengo belaunaldiarentzat ari zen lanean. Baina zoritxarrez, eukaliptoak sartzen hasi dira... Lurra pobretzen ari da batzuk aberasten diren bitartean, errentagarritasunaren izenean. Halere, Anak ahal duen neurrian segituko du baso bizia defendatzen, eta udalak alde horretara joaten lagunduko duela badaki. Lanean ez da berehala hasiko, baina udazkenerako bizkortuko dela uste du.

Ongi dago Ana. Etxean dago Gollebarren, etxean basoan ere.

Bidaia berezia bizi izan du, bai bidean nola ospitaleko barne bidaian. Mintzamina nahi bezala berreskuratzea ez da lan arina izan, behin baino gehiagotan komentatu du amarekin San Rokeren azpitik pasatu beharko lukeela, horrela egiten baitzuten gurasoek prozesio egunetan, haurrak santuaren azpitik igaroarazi, ongi hitz egin zezaten.

Donejakueko erromesak zeren bila doazen oraindik ere zehazki ez badaki ere, abenturak inoiz baino argiago utzi dio zenbat zor dien zuhaitzei, izaki eder eta maitagarri horiei esker berreskuratu baitu hain maite duen bizitza. Ez dira egurra soilik, gure hatsa eta gure memoria baizik.

Sabinak alabaren eskua ez du uzten. *Orain joan naiteke*, pentsatzen du. Bakea berreskuratu du, etxeak inguruan ditu, ongi dago dena. Ez du presarik, baina prest da.

Bisita bat izan dute bezperan. Frantziar matrikuladun autoa plazan gelditu denean, turistaren bat izanen zela pentsatu du Anak, orduantxe ur freskoa hartuta iturritik itzultzen ari zela. Baina berehala ezagutu du Ximunen silueta garaia. Hau Simon Bolivarren monumentuaren ondoan plantatu da, posea harturik, Simonen arteko kidetasunari keinu eginez. Ana barrez lehertu da Simon Askatzailea eta Ximun Anaren askatzailea elkarren ondoan ikustean.

Besarkada estua eman dio adiskideari, eta Anak *Ze, Ximun, untsa zirea?* Eta honek *Ederto!!*